

GOIZA BA-DATOR

Goiza ba-dator,
aundi ta pozkor!

Zeru baltzizka goian
gorriz da bitxitu,
eguzkiak dizdizka
darabil erraiñu.

Lugiña baserrian
—soloak irrika—
kortako jdi bizkorra!
ikus zoli deika.

Goiza ba-dator,
aundi ta pozkor!

Zugatz-puntak aizeak
ipiñi dauz dardar,
ta txorí-sail ixilla
asia da barbar.

Ezpanean irriño
etxekoandrea
senarran laguntzen
yabilku maitea.

Goiza ba-dator,
aundi ta pozkor!

Eguzki erraiñuak
bedarrean argi;
aur setati antzera
intzak negar dagi.

Kanta jtzez zamatu da
Maite'ren abotsa,
erne-miñetan daula
barnean biotza.

Goiza ba-dator,
aundi ta pozkor!

Txori-argien lagun,
poz-oiu betean,
zoaz, neskatz, solora
eguna argitzean.

An naurkikezü miñik
sagasti ondoan,
zure kanta doiñua
dodala gogoan.

Goiza ba-dator,
aundi ta pozkor!

KANTUZ!

Arratsa kantuz doa,
—norentzako kantuz?—
ibai-une ixillean
zurmur gozozko uluz.

Txindorra kantuz dago,
—norentzako ete?—
zume rnalgu gaiñean
zanko biak tente.